

PRESBIDE BERRIKUNTZAK 2020KO URTARRILA

TABAKOA ERRETZEARI UZTEKO TRATAMENDUA

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak finantzatu ditu tabakoa uzteko tratamenduetarako erabiltzen diren Champix® (vareniclina) eta Zyntabac® (bupropion) medikamentuen agerpen batzuk.

Tratamendua finantzatu ala finantzatu gabea izan daiteke, honako baldintza hauen arabera:

- **Finantzatutako tratamendua:** tabakismoa tratatzen laguntzeko programaren barruan dauden pazienteak (banakako eta/edo taldekako programa), baldin eta egunean 10 zigarro edo gehiago erretzen badituzte eta euren mendekotasun maila ≥ 7 koa bada Fagerström testaren arabera. Horrez gain, tabakismoaren alorreko esku-hartzeari buruzko inprimaki korporatiboak beteta eduki behar dituzte Osabide Globalen.

Urtero, erretzeari uzteko saialdi bakarra finantzatuko da. Medikamentuen preskripzioa “Akutua” motakoa izango da, eta **“Ohitura kendu” izeneko marka aktibatu** beharko da Presbiden. Kontrako erreakzioengatik medikamentua aldatu behar bada, bigarren tratamendu hori ere finantzatuko da. Urtean behin finantzatuko den saialdiak, oro har, 3 hilabete iraungo du gehienez.

Pazienteak farmazia-bulegora joango beharko dira medikamentua jasotzera, eta farmazia-ekarpenaren arabera ordainduko dute zenbatekoa.

- **Finantzatu gabeko tratamendua:** aurreko baldintzak betetzen ez dituzten pazienteak. Tratamenduaren zenbateko osoa ordaindu beharko dute.

Gaur egun, tratamendu horien preskripzioa marka komertzialaren arabera egin behar da (ez dago gaituta printzipio aktiboaren araberako preskripzioa).

FINANTZATUTAKO TRATAMENDUEN PRESKRIPZIOA


Gaur egun, Champix® (vareniclina) eta Zyntabac® (bupropion) medikamentuen agerpen batzuk baino ez dira finantzatzen. Hauek dira, hain zuzen:

- Champix 0,5 mg, 56 konprimitu
- Champix (hasierakoa) 0,5 mg, 11 konprimitu + 1 mg, 42 konprimitu
- Champix 1 mg, 56 konprimitu
- Zyntabac 150 mg, 30 konprimitu
- Zyntabac 150 mg, 60 konprimitu

Gainerako medikamentuekin bezala, une bakoitzean finantza daitezkeen agerpenak ezagutzeko, "Finantzatua" iragazkia erabili beharko da. Iragazki hori modu lehenetsian hautatuta dago Presbiden medikamentuak bilatzeko aukeran.



Behin medikamentuaren agerpena hautatuta, pazienteak bete beharreko baldintzak jakinaraziko ditu Presbidek, tratamendua finantzagarria izan dadin:



Pazienteak baldintzak betetzen baditu, "Ohitura kendu" marka aktibatu beharko da, ikus-onesteko laukitxoak agertu ohi den tokian.

Behin marka hori aktibatuta, sistemak preskripzio akutua baino ez du onartuko, hura baita modu lehenetsian eskaintzen dena.

⚠ Tabakoa uzteko preskripzio finantzatuak Akutu motakoak baino ezin izango dira izan

→ [Sortu preskripzia](#)

Preskripzio – Posologiaren informazioa

Produktua: 893875 - ZYNTABAC 150MG 30 COMPRIMIDOS RETARD Edukia: 30 COMPRIMIDO
 Printzipio aktiboa ATC: BUPROPION Dosis: 1 (COMPRIMIDO) ~ 150 (MG) Hartzeko bidea: ORAL Gertakaria
 Mota: Akutua Tratamenduaren hasiera: 2019/12/20 Amaiera: Egun:
 Ohitura kendu

→ [Posologia](#)

Hartualdi bakoitzeko dosia: 1 COMPRIMIDO ≈ 150 MG
 Pauta: Noiztik behin? -- Hautatu --

Finantzatutako tratamenduaren iraupena gainditu dela jakinarazteko abisua

Tratamendu berri bat sortzean, pazienteak azken urtean tabakoari uzteko preskripzio gehiago dituen identifikatzen du Presbidek; eta urte horretan finantzatuko den tratamenduak gutxi gorabehera zenbat iraungo duen kalkulatzeko. Guztira hiru hilabete baino gehiago irauten badu, informazio-abisua bat agertuko da iraupen hori jakinarazteko:

→ [Crear Prescripción](#)

Información de la Prescripción - Posología

Producto: 656183 - CHAMPX 1MG 56 COMPRIMIDOS RECUBIERTOS Contenido: 56 COMPRIMIDO
 Principio Activo ATC: VARENICLINA Dosis: 1 (COMPRIMIDO) ~ 1 (MG) Via de administración: ORAL Episodio: Hospitalización a Domicilio
 Tipo: Aguda Inicio del tratamiento: 17/12/2019 Finalización: Meses: 15/03/2020 Campaña sanitaria: Prescrito en domicilio: Seguimiento:
 Deshabilitación:

→ [Posología](#)

Dosis por toma: 1 COMPRIMIDO ≈ 1 MG
 Pauta: cada Acostarse

Resultado de la validación

⚠ **Advertencias detectadas en la Prescripción**

La prescripción que intenta realizar con respecto al tratamiento ya pautado del paciente excede el tiempo objeto de financiación para la deshabilitación tabáquica en el último año. La duración total de los tratamientos es de 120 días.

CHAMPX 1MG 56 COMPRIMIDOS RECUBIERTOS

FINANTZATU GABEKO TRATAMENDUEN PRESKRIPZIOA

Presbidek finantzatu gabekotzat jotzen ditu "Ohitua kendu" marka aktibatuta ez duten preskripzio guztiak, medikamentuaren agerpena finantzagarria edo finantzaezina den kontuan hartu gabe.